



ZUZENBIDE KONSTITUZIONALA

BERDINTASUNA ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN

1

Jasone ASTOLA MADARIAGA

AURKIBIDEA: **I.** Sarrera: genero-ikuspegiaren azalpen laburra.-**II.** Berdintasun printzipioaren garrantzia konstituzionalismoaren historian. Berdintasun formala eta berdintasun materiala.-**III.** Berdintasun-printzipioa konstituzioan. Zuzenbideberdintasunaren klausula orokorra.-**IV.** Berdintasuna legearen aurrean eta bereizkeriaren debekua: Bereizkeria zuzena eta zeharkakoa.-**V.** Berdintasunaren eragina herri-agintean: Bereizkuntzaren osagai objektiboak.-**VI.** Berdintasuna eta bereizkeriarik eza Europar Batasunean.-**VII.** Kasu praktikoak.-**VIII.** Eskura izan behar diren estekak.

I. Sarrera: genero-ikuspegiaren azalpen laburra

Gizarte-zientzietan egon den emakumeen ikusezintasuna azaltzeko “genero” ikuspegiko metodologiak hasi ziren erabiltzen akademian 80etan. Eta metodologia horietan sartzeko ezinbestekoa da genero sexutik bereiztea¹: sexua biologiak erabakitzen duen zerbait da; generoa, berriz, kulturatik datorkigun adigaia da. Kulturak erabakitzen ditu genero-rolak, kulturak adierazten dio sexu bakoitzari nola osatu behar duen bere nortasuna. Eta rol horiek ez dira berdinak emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat, are gehiago, emakumezkoak gizonezkoen menpean geratu ohi dira.

Genero adigaia, genero-identitatea edo genero-nortasuna, 1955ean haurren endokrinologo batek asmatu zuen, John MONEYek, hain zuzen, azaltzeko nola osatzen ziren genero-rolak sexu biak izaten zituzten haurrengan. Geroago, 1986an, Joan W. SCOTTEk genero adigaia akademian sartu zuen, ikerketarako baliabide moduan, idatzi zuenean *Gender: A useful category of historical analysis*².

Eskubideen konstituzio-osaeran ez bada genero-ikuspegia txertatzen, ematen du pertsona guztiak sartzan direla aztertzen ditugun une ezberdinetan eta aztertzen ditugun eskubideetan, eta hori ez zen horrela gertatu. Ikusiko dugunez, eskubidedun bakarra lehenengo unetan gizona zen, ez baita egia hark lortu zituen eskubideak guztiok lortu genituela adieraztea. Horregatik, ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea edozein ikasketa akademikoan, benetako informazioa jaso nahi bada.

Genero-ikuspegiari lotuta dago, ezinbestez, hizkeraren erabilera aproposa, hots, hizkera sexistaren debekua. Euskal Herriko Unibertsitatearentzat debeku hori aurreikusita dago, zehazki, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 33.2 artikuluan:

(Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek) “Orobat, jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin bermatuko dute”.

¹ Sakontzeko adigai hauetan interesgarria da Silvia TURBERT (Koord.), *Del sexo al género: los equívocos de un concepto*, Catedra, Madril 2003.

²

http://faculty.morris.umn.edu/~deanej/UMM%20Home%20Page/2001/Readings/Gender/Scott_Useful%20Category.pdf helbidean eskuragarri [Azken kontsulta 2013ko urriaren 4an].





II. Berdintasun printzipioaren garrantzia konstituzionalismoaren historian. Berdintasun formala eta berdintasun materiala

2

Pertsonak legearen aurrean berdinak izatea iraultza liberalaren errebindikazioetariko bat zen, eta Frantziako Iraultzan sortutako estatuaren leman idatzirik geratu zen (*liberté, égalité, fraternité*). Baina iraultzatik gizonezkoen berdintasuna baino ez zen atera. 1789ko Gizon eta Hiritarraren Eskubideei Buruzko Adierazpenaren 1. artikulua honela zioen:

Gizonak libre eta eskubide berdinekin jaio eta mantentzen dira. Gizarte-bereizketak onura komunean baino ezin oinarritu daitezke³.

Olympe de GOUGEsek 1991n idatzi zuen Emakume eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpenean esandakoa paper hutsa bilakatu zelako, hots, gizonak eta emakumeak eskubide berdinak zituztela⁴.

Gizon eta Hiritarraren Adierazpen horretan aldarrikatu zen berdintasuna formala zen, hots, legearen aurrean gizon guztien egoera berdina izatea. Hori ulertzeko, kontuan izan behar dugu Antzinako Erregimenean pribilegioa zela nagusi, eta, horregatik, urrats handia zen berdintasun formala lortzea, nahiz eta gizonentzat baino ez lortu. Estamentu-gizarte hartan erabiltzen ziren legeak eta lege horiek erabiltzen zituzten auzitegiak ezberdinak ziren, hartzailearen izaera pertsonalaren arabera. Hori adierazita, hobeto ulertzen da berdin izateak legearen ondorioekin zeukala zerikusia eta ez hiritarren arteko berdintasunarekin. Benetan bilatzen zena legearen helmena gizon guztientzat izango zela bermatzea zen. Hori argi geratzen da 1789ko Eskubideen Adierazpenaren 6. artikuluan:

Legea borondate orokorraren adierazlea da (...) Guztiontzat bera izan behar du, bai babesten duenean eta baita zigortzen duenean ere. Hiritar guztiak haren begietarako berdinak izanik...⁵

Horrela berdintasun-printzipioa legezkoitasun-printzipioan barneratu zen, hots, legeak berdintzat hartzen zituenak ziren berdinak. Ez zegoen, orduan, berdintasunerako eskubiderik legegilearen aurrean. Berdintasunari buruzko pentsaera hori **berdintasun formala** edo legearen aurreko berdintasuna izan zen.

Beste ñabardura bat izan behar dugu kontuan: nahiz eta berdintasun formal hori gizon zurientzat baino ez egon onartuta, adierazteko orduan, ikusi dugunez, adigai unibertsal erara erabili zen, eta berdintasunak bere jaiotzetik izan zuen tratu horrek eragina izango du hurrengo konstituzionalismoan.

Berdintasun liberalak legean ondorio hauek izan zituen: (1) Legeak unibertsala izan behar du, gizon guztientzat baliagarria; (2) orokorra, gizon guztiek erabiltzeko, ez talde batek edo bestek; (3) abstraktua, gizarte osoarentzat pentsaturikoa; eta (4) iraunkorra, edo behintzat asmo horrekin jaioa. Ez dago egoera zehatz batzuetarako legerik egiterik. Beraz,

³ Les hommes naissent et demeurent libres et égaux en droits. Les distinctions sociales ne peuvent être fondées que sur l'utilité commune.

⁴ *La Femme naît libre et demeure égale à l'homme en droits. Les distinctions sociales ne peuvent être fondées que sur l'utilité commune.* Adierazpen osoa irakur daiteke frantsesez <http://www.philo5.com/Mes%20lectures/GougesOlympeDe-DeclarationDroitsFemme.htm> helbidean [azken kontsulta 2013ko irailaren 24an], eta bi Adierazpenak aldaratzeko begiratu hurrengo helbidea: <http://www.feministasconstitucional.org/sites/default/files/FRANCIA-DECLARACION DERECHOS 1789 y DE LA MUJER 1791 %28Olympe de Gouges%29-1.pdf> [azken kontsulta 2013ko irailaren 24an].

⁵ *La loi est l'expression de la volonté générale (...). Elle doit être la même pour tous, soit qu'elle protège, soit qu'elle punisse. Tous les citoyens étant égaux à ses yeux...*





"lege singularrak", bakoitzaren inguruabar pertsonal edo soziala kontuan izanda egiten direnak, edo aldi zehatz baterako egiten direnak, hau da, hartzaile zehatzak dituztenak, baztertu egin ziren.

Berdintasunaren adigai horrek aldaketa handiak izan ditu, batez ere bere izaera formal hutsa gainditzeko. Aldaketarako jardunbide hori gaur egungo zerga-sistema ezartzerakoan hasi zen, zerga-sisteman onarturik baitago gehikortasun-printzipioa. Horren arabera, zergen zama ez da ondasunen heinarekiko erabakitzen, progresio bat gordeta baizik. Hortik dator lema: gehiago duenak gehiago ordaindu behar du; horrela, bakoitzaren ordainean berdintasuna bilatzen da. Zerga-legeak izan ziren lehenak berdintasun formala gainditzeko, ondarearen arabera bereizten baitziren haien hartzaileak, egoera ezberdinean zeudenak era ezberdinean tratatzen baitziren —gaur egungo berdintasuna zerga legeetan ikusteko interesgarria da Konstituzio Auzitegiaren Epaia —KAE hemendik aurrera— [KAE 295/2006](#), bereziki 7. zuzenbide-oinarria (ZO oraindik aurrera)—.

XX. mendean gizartearen ezberdintasunak gero eta argiago geratu ziren, eta konstituzioaren balioa legearen baliotik gailentzen hasi zen heinean nabarmentzen hasi zen berdintasunerako eskubidea legearen aurrean ere eska zitekeela.

Berdintasunaren geroagoko bilakaerak bide beretik jo du, lehenengo adigaitik —berdintasun formala, legearen aurrekoa— gero eta gehiago aldentuz, eta **berdintasun materialaren** esparruan sartuz. Hau da, legearen barruan edo legean eta legearen aplikazioan berdin izatea izango da helburua. Adigai horren ondorioa legean, lehenengo ildoari jarraituz, hauxe izan da: Legeek ez dute unibertsalak, orokorrak, abstraktuak eta iraunkorrak izan behar, orain litekeena da lege singularrak egitea, gizaki batzuentzat edo talde edo alor jakin batentzat, aldi jakin baterako balio dutenak eta bereizleak direnak. Orokor edo iraunkorrak izanda ere, hartzaileak desberdin tratatzea, haien berezitasunen arabera, zilegi bilakatzen da. Konstituzio Auzitegiak —[KAE 166/86](#), *Rumasa II* kasua— onartzen ditu lege singularrak esanez "berdintasun-printzipioarekin bat datozela egoeraren singulartasuna gertakarietatik datorrenean eta arauaren suposamendua haietatik datorrenean eta legegilearen eginbehar bakarra nahi duen helburua lortzeko behar diren zuzenbide-ondorioak jartzea denean".

Bilakaera horren arrazoia errealitatean datza. Gure gaurko gizartean gizabanako bakoitzaren egoera eta gizataldeen egoerak ez dira berdinak. Benetako berdintasuna lortzea gaurko estatuaren helburuetariko bat da. Horra heldu arte, gaur egungo berdintasunak zera adierazten du: **tratu bera egoera berean daudenentzat**, edota, **tratu ezberdina egoera ezberdinean daudenentzat**.

Bilakaera horretan oraindik ez da lortu emakume eta gizonen berdintasuna adieraztea hitzez hitz konstituzioetan, horien arteko benetako berdintasuna lortzeko —bai formala eta bai materiala—. Gizakien berdintasuna adierazten denean, gizonentzat pentsaturikoa hartzen da ardaztat eta horren ondorioa da tratu berdintzat hartzen diren hainbat ez direla horrelakoak, zeren tratu bera izateak, askotan, tratu ezberdina izatera eramaten ditu gizon-emakumeak. Adibide batek emango dio argitasuna esandakoari: gaur egun ditugun parlamentuetan —Europar Batasunetik hasita Eusko Legebiltzarreraino— ez da aurreikusita egon XXI. mendera arte zer gertatzen den parlamentari bat erditzen denean. Arauetan, ustez, tratu berdina -bera- jasotzen dute guztiek, baina parlamentari bat erditzen denean bi aukera ditu: kargua utzi edo umea utzi. Hamarkada honetan hasi dira urratsak egiten: Kataluniako Legebiltzarrak kasu horietan boto ordezkatzeko onartu zuenean, eta Diputatuen Kongresuak, 2011ko irailaren 1etik aurrera, bere [araudiaren](#) 82.2 artikulua arabera, onartzen du boto telematikoa kasu horietan, betiere horretarako aurreikusita duden baldintzak bete ondoren—.





Egoera horretatik ateratzeko martxoaren 22ko [3/2007](#) Lege Organikoan⁶, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoan, lehenengo aldiz espainiar zuzenbidearen historian esaten da:

Emakumeak eta gizonak berdinak dira giza duintasunean, eta berdinak eskubide eta betebeharretan —1.1 art.—.

Eta geroago, 2008ko martxoaren 14an BOEn argitaratu zen, Espainiak egin duen berrespenerako baliabidea Erroman 2000ko azaroaren 4an sinatu zen Protokolorako. 12. [Protokolo](#) hori Erromako Giza Eskubideen Hitzarmenari dago atxikita, eta bertan, zehazki, bereizkeriarik eza arautzen da.

Gaurko berdintasunak beste esanahi bat ere badu, herri-aginteen jarduerarako muga izatea, herri-aginteen arbitrariotasunaren, bidegabekeriaren kontra erabiltzeko. Dakigunez, ezberdintzea litekeena da, baina ezin da era arbitrarioan egin; eta horrela gertatzen bada, berdintasunaren klausula erabilia, herri-agintariak hartu duen erabaki arbitrarioaren kontra joatea bidezkotzat hartzen da.

III. Berdintasun-printzipioa konstituzioan. Zuzenbide-berdintasunaren klausula orokorra

Konstituzioak berdintasun hitzari adiera ezberdinak ematen dizkio, eta testuan adierazitakoak behartzen gaitu guztiak elkarrekin erlazionatzen:

(1) 1.1 artikuluan esaten da berdintasuna zuzenbideak duen balio handienetariko bat dela, konstituzio-egituraketa osoaren funtsezko osagaia:

“Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko moduan eratzen da, eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta politika-aniztasuna defendatzen ditu, bere zuzenbide-antolamenduaren balio nagusitzat harturik”.

(2) 9.2 artikuluan, herri-agintek behartzen dira gizabanakoaren eta gizabanakoek osatzen dituzten taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzera:

“Herri-aginteei dagozkie bideak sustatzea gizabanakoaren eta gizabanakoak osatzen dituen taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin; berdintasun osoa eragozten edo zailtzen duten oztopoak baztertzea; eta hiritar guztien parte-hartzea erraztea politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan” –Berdintasun sustagarria deitzen zaio horri–.

(3) Eta, 14. artikuluko berdintasunak legean eta legearen aurrean berdin izatea adierazten du:

Espainiarrak legearen aurrean berdinak dira eta ezin iraun dezake jaiotza, arraza, sexu, erlijio, adierazpen edo gainerako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialgatik dagoen bereizkeriarik.

Horiek horrela, berdintasunak: (1) ez du beti beratasuna adierazten; baina (2) herri-agintek berdintasuna gauzatzekoan muga bat izango dute, ezin izango dute bidegabekeriak jokatu (9.3 art.).

⁶ [Euskaraz](#)





Hortik aparte, hainbat tokitan agertzen da berdintasuna Konstituzioan: 23.2 artikuluan, herri-funtzio eta -karguetan sartzeko berdintasuna; 31.1 artikuluan, zerga-berdintasuna; 32.1 artikuluan, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna ezkontzeko; 39.2 artikuluan, seme-alaben berdintasuna haien jatorria alde batera utzita. Seme-alaben berdintasunari buruzkoa da [KAE 9/2010](#). Testamentu baten inguruko auzia ebaztekoa zen epai horretan, KAK ez zuen onartu aurreko auzitegietan egin zen interpretazioa seme-alaba legitimoen buruz, eta adoptatu batzuk adigai horretatik kanpo uztea bereizkeriatzat hartu zuen —5. ZO —.

Seme-alaben berdintasunak salbuespen bat zeukan Konstituzioa betetzeke uzteko, eta sexuaren araberako bereizkeria onartua izateko: noble-titulua jasotzeko ohitura, eta KAKen jurisprudentzia ohitura hori onartzeko —[KAE 126/1997](#)—. Mantentzen zen bereizkeria ezabatzeko egin zen urriaren 30eko [33/2006](#) legea, noble-tituluen oinordetzaren hurrenkerarako gizon eta emakumearen berdintasunarena.

Ikusi dugunez, gure Konstituzioan berdintasunaren esanahia oso konplexua da, eta Konstituzioan xedaturikoa betetzen den ala ez jakiteko, kasuz kasu aztertu beharko da. Batzuetan, adigai hori beratasuntzat hartzen da, hau da, *tratu bera* jasotzea nahiz eta egoera ezberdinean egon (seme-alaben kasuan, adibidez); beste batzuetan, berriz, ekintza errealitatean dauden ezberdintasunera egokitzea adierazten du berdintasunak, hau da, berdina era berdinean tratatzea, eta ezberdina era ezberdinean, edota egoera berean daudenak *tratu bera* jasotzea (*tratu berdina* izango litzateke hori zergen kasuan, adibidez).

IV. Berdintasuna legearen aurrean eta bereizkeriaren debekua

Aurrean ikusi dugu Konstituzioaren 14. artikulua, Lehenengo Tituluko Bigarren Kapituluako atarian dagoenak, xedatzen duena. Klausula hori da gure oinarrizko eskubide eta askatasunen adierazpenaren ataria. Eta artikulua horren edukian bi gauza daudela izan behar dugu kontuan: berdintasun-printzipioa eta bereizkeriaren debekua —[KAE 200/2001](#), 4. ZO ; [3/2007](#), 2. ZO ; edo [233/2007](#), 5. ZO —.

Berdintasuna benetako eskubide subjektiboa da Konstituzio espainiarrean, horregatik defenda daiteke auzitegietan, baita Konstituzio Auzitegiaren aurrean ere. KAK, apirilaren 6ko [10/1981](#) Epaian argi utzi zuen 14. artikuluko berdintasunak oinarrizko eskubideen eta herri-askatasunek duten *tratu bera* jaso beharra duela. Otsailaren 26ko [KAE 7/1982an](#) adierazten da 14. artikuluan zuzenbide-berdintasunerako eskubidea onartzen dela, hau da, bereizkeria edo legean justifikaziorik gabe *tratu ezberdina* jasotzea, arrazoirik gabekoa denean, debekatzen dela. Hori bai, kontuan izanda bereizte guztiak ez direla bereizkeriatzat hartzen —besteak beste [KAE 216/1991](#)—. Uztailaren 14ko [KAE 49/1982an](#) esaten da *tratu berdina* jasotzeko eskubide subjektibo baten aurrean gaudela, hau da, pribilegioak eta ezberdintasun bidegabeak alde batera utzi behar direla. Berdintasunak ez du guztiok berdinak garenik adierazten, guztiok *tratu berdina* jasotzeko dugun eskubidea baizik.

Eskubide hori, harremanetarako eskubidea denez, zaila da eskubide autonomo gisa erabiltzea, eta zaila da eskubide hori urratzea aldi berean beste eskubide bat urratu gabe. Normalean, berdintasuna beste eskubide bat arautzen denean urratzen da. Berdintasunerako eskubideak izaera generikoa du —abuztuaren 3ko [KAE 75/1983](#)—, zuzenbidezko harremanen gain proiektatzen dena, batez ere herri-aginte eta hiritarren artekoetan, norberak gainerakoek duten *tratu bera* izateko eskubidea delako.

Eskubide subjektiboa izanik, herri-aginteez bete behar dute, egoera berdinean daudenei *tratu bera* emanez (gogoan izan 9.3 artikuluan debekatzen den herri-aginteen bidegabekeria), eta ideia hori haien jarduerarako muga bat da, bai legegilearentzat, bai betearazlearentzat, eta baita ere epaitzekoarentzat —epaile edo auzitegi bakoitzaren





ebazpenek berdinak izan behar dute gertakariak berdinak badira, eta irizpidea aldatzerakoan arrazoitu beharko du berdintasuna ez urratzeko—.

Beraz, Konstituzioaren 14. artikuluan, espainiar guztiak legearen aurrean berdinak direla xedatzen denean, honako hau adierazten da:

- (1) tratu berdina izateko eskubide subjektiboa dugula;
- (2) herri-aginteak tratu berdin hori emateko behartuta daudela; eta
- (3) aginte legegile eta betearazlearen jarduera mugatuta dagoela eskubide horren bitartez.

Konstituzioaren 14. artikuluan, bereziki, bereizkeria egiteko erabili ohi diren arrazoiak aipatzen dira: jaiotze, arraza, sexu, erlijio eta adierazpena. Gure konstituziogileak uste zuen aipatzen diren arrazoiak egoera gutxituak sortzeko erabili ohi direla gure gizartean; horregatik, arrazoi horiek aparteko eragina dute zuzenbidean. Esate baterako, normalean auzitegien aurrean zerbait salatzen duenak, hau da, salatariak, bere salaketaren arrazoi frogatu behar badu, salaketa hori 14. artikuluan aipatzen diren bereizkeriaren arrazoi batean sustatzen denean, salatuari dagokio frogatzea, berak zurutu beharko du bere egintza, bereizkeria ez eta bereizkuntza dela frogatzeko. Eta, kasu horietan, auzitegiek azterketa zorrotz-zorrotza egin behar dute (KAE [68/1982](#), azaroaren 22koa eta [81/1982](#), abenduaren 21koa, eta, geroago, aurreko jurisprudentziari ñabardurak sartzen dizkien KAE [34/1984](#), eta [38/1986](#)).

Aipaturiko arrazoi zehatzetatik kanpo "gainerako edozein baldintza edo inguruabar" aipatzen da, eta zehaztasun falta horrek bidea ematen du interpretazioak egiteko. Adibidez, KAE [184/1990](#) eta [222/1992](#) jarriko ditugu, epai horietan era ezberdinean ulertzen delako ezkondua ez egoteak zuzenbidean ekar litzakeen ondorioak.

Kontuan izan behar dugu bereizkeriaren debekuak partikularrengan duen eragina zeharkakoa dela, hau da, lege batean arautzen denean baino ez da bete beharrekoa, 14. artikuluan aipatzen diren arrazoiaren kasuan izan ezik (KAE [117/1988](#), [108/1989](#), [171/1989](#), eta [28/1992](#), besteak beste); salaketa arrazoi horietan oinarritzen denean, Konstituzioaren I. Tituluko II. Kapituluko erabilgarritasun zuzena gailentzen da.

Bereizkeria zuzena eta zeharkakoa

KAre jurisprudentzian bi eratako bereizkeriak aipatzen dira, eta biak Konstituzioaren kontra doaz (besteak beste, KAE [198/1996](#), abenduaren 3koa):

(1) **Bereizkeria zuzena:** antzeko egoerei arau ezberdina aplikatzen zaienean, edota egoera ezberdinei arau bera aplikatzen zaienean; eta

(2) **Zeharkako bereizkeria:** neutraltasun-itxurako arau, irizpide edo usadio batek gizaki batzuentzat eragozpenak sortzen dituenean, besteen aldean; betiere, esandako arau, irizpide edo usadio hori justifikaturik ez dagoenean proportziozkoa eta bidezkoa den helburu bat lortzeko, eta horretarako erabiltzen diren baliabideak egokiak eta beharrezkoak ez direnean –KAE [3/2007](#), 2. eta 3. ZO ikusteko sexua dela eta egindako zeharkako bereizkeria; eta [154/2006](#), 6. eta 7. ZO seme-alaben egoera dela eta egindakoa—.

Horrela adierazten da, besteak beste, azaroaren 27ko 2000/78/EE Kontseiluaren [Direktiban](#), lanean tratu bera jasotzeko eredu arautzen duenak, (Aldizkari Ofizialean L 303, 2000/12/02, 16.-22. or.) 2. artikuluan esaten da bereizkeria zuzena dagoela gizaki batek antzeko egoeran dagoen beste batek baino tratu txarragoa jaso, jasotzen edota jasoko duenean EKren 14. artikuluan aipatzen diren arrazoiengatik; eta zeharkako bereizkeria dagoela neutral itxurako arau, irizpide edo usadio batek gizaki batzuegan eragozpen berezirik ekar badezake.





14. artikuluan atek zabalik uzten dira beste kasu batzuk bereizkeriatzat hartzeko, beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialen arrazoiengatik esaten denean. Hori bai, kasu horietan, salatzen duenak frogatu beharko du bereizkeria izan dela.

Emakumezko eta gizonezkoak zuzenbidean inolako bereizkeriarik, bereziki zeharkakorik, ez jasotzeko bidea zabaldu da, eta horren ondorioa izan da urriaren 13ko [30/2003](#) Legea, gobernuak egiten dituen arauetan genero-eraginaren balorazioa sartzeko neurriei buruzkoa. Lege hori dela eta, gobernuak behartuta dago lege-proiektuen eta erregelamenduen genero-eragina aztertzeko. Hortik aurrera, aurreikuspen ekonomikoa eta genero-eragina atxiki behar dira horrelako arauetan.

Euskal Herriko Autonomia-Erkidegoaren kasuan gauza bera eskatzen du otsailaren 18ko [4/2005](#) Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, EHAA 2005eko martxoaren 2an argitaratu zenak, bereziki 3.4 eta 19. artikuluetan —beste autonomia-erkidego batzuetan ere antzeko legeak daude, besteak beste, begiratu Balear Uharteetako irailaren 20ko [12/2006](#) Legea, Emakumearentzat, hain zuzen—.

Eta genero-eragina aztertzeko Euskadin kontuan izan behar da abenduaren 22ko [8/2003](#) legea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Eta lege hori osatzeko otsailaren 14ko [5/2007](#) Ebazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena; haren bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, "genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa", argitara dadila xedatzen da.

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu 9.2 artikuluan herri-aginteei eskatzen zaiena, berdintasunaren sustatzaile moduan hain zuzen. Agindu horrek adierazten digu egoera gutxitu batean aurkitzen diren gizabanako eta gizataldeei laguntzeko hartzen diren neurriak legepean egongo liratekeela. Hori horrela, gure Konstituzioan gutxituen aldeko bereizkuntza —bereizkuntza eragilea— egokitzen hartzen da, horixe adierazten du KAK, adibidez, [269/1994](#) epaian 5. ZO. Hori zela-eta egin zen abenduaren 2ko [51/2003](#) Legea, ezgai diren aukera berdinen, bereizkeriarik ezarena eta eskuragarritasun unibertsalarena, gero, abenduaren 1eko [1414/2006](#) Errege Dekretuak zehaztu zuen nor den ezgai, aurreko legearen aplikazio-eremuan sartzeko.

Bereizkuntza egitea, gutxituen aldekoa denean, zilegi barik, bete beharreko zerbait bilaka daiteke, haiek euren egoeratik irteteko laguntza denean. Azaroaren 13ko KAE [34/1981](#), ZO 3k gaineratzen du zilegi dela herri-aginteei bereizkuntza egitea eskatzea zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batean, eta, Espainiako kasuan, zilegi barik beharrezkoa izango litzatekeela, 1.1 artikuluan agertzen diren helburuak gauzatzeko.

Orain arte ikusirik adigaiak abenduaren 30eko [62/2003](#) Legeak bildu ditu, Zerga, Administrazio eta Gizarte Esparruko Neurrienak —akatsen zuzenketa BOEn 2004ko urtarrilaren 3an egin zen—, III. Kapituluaren, hain zuzen. Kapitulu horren titulua da "tratu berdinen printzipioa aplikatzeko neurriak", eta haren sarrerako 27.1 artikuluan hau esaten da:

Kapitulu honen helburua da neurriak ezartzea tratu berdinen eta bereizkeriarik ezaren printzipioaren aplikazioa benetakoa eta eraginkorra izan dadin, bereziki, arraza edo etnia-jatorria, erlijio edo uste sendoak, adina edo sexu-aukera dela eta, lege honen sailetan ezartzen denaren arabera.

Eta 28.1 artikuluan ikusi ditugun bereizkeria zuzena eta zeharkakoa definitzen dira, baita jazarpena ere

Nahi ez den jokaera pertsona baten arraza edo etnia-jatorriarekin, erlijio edo uste sendoekin, gaitasunik ezarekin, adinarekin edo sexu-aukerarekin lotua, haren helburu edo





ondorioak direnean pertsonaren duintasunaren kontra joatea eta ingurune larderiazko, apalgarri edo iraingarri bat sortzea.

esaten du 28.1 d) artikulua, eta 28.2ak adierazten du bereizkeriatzat hartzen dela portaera hori.

30. artikulua esaten du arraza edo etnia-jatorri berekoentzat aldeko ekintzak egitea bidezkoa dela, eta 32. artikuluan adierazten da ezen arrazoi horiek direla-eta auzibidea zibil zein administrazioarekikoan erabiltzen bada, salatuari dagokiola frogatzea ez dela bereizkeriarik izan. Gainerako arrazoiengatik ere, gauza bera gertatuko da (besteak beste, 96. art.).

Hori bai, 7. xedapen gehigarrian adierazten da atzerritarrei ez zaiela lege hori aplikatuko.

Amaitzeko, esan behar dugu aldeko egintzak, gehienbat, gizonezko eta emakumezkoen artean dagoen ezberdintasuna gutxitzeko erabili ohi direla, eta, hori dela eta, printzipio bat erabakita dagoela jurisprudentzian: onartzen dira emakumezkoen aldeko egintzak, egintza horiek babesleak ez direnean (KAE [3/1993](#), *Alaba eta arreben pentsioak*).

Orain arte ikusitako adigaiak gizonen eta emakumeen berdintasunerako egin den 3/2007 Lege Organikoan erabiltzen dira, bereziki, berdintasun hori lortzeko —KAE [12/2008](#) konstituzioarekin bat datorrela ikusteko—.

Lege horren Zioen Adierazpenean, zehazki II.ean, esaten denez, berdintasun formalaren erabateko onarpena, nahiz eta garrantzizko aurrerapauso izan, ez da nahiko izan. Genero-indarkeriak, soldata-bereizkeriak, alargun pentsioen bereizkeriak, emakume langabetuen kopuruak, politika-, gizarte- kultura- eta ekonomia-erantzuleen artean emakume gutxi egoteak edota norberaren, familiaren eta lanaren eskaerei aurre egiteko dauden zailtasunek erakusten dute emakumeen eta gizonen erabateko berdintasuna ez dela oraindik lortu —John Stuart Millek⁷ orain 140 urte adierazi zuena, hots, “egiazko berdintasunak ez du onartzen batzuentzat agintea eta pribilejioa eta beste batzuentzat ezgaitasuna”—.

Eta hori gauzatzeko legeak hainbat gauza arautzen ditu —legeak aurreko titulua, zortzi titulu, xedapen gehigarri bat, hamaika xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta zortzi azken xedapen ditu, berdintasuna gizarteko alor guztietara eramateko—. Eta zerbait ez badago aurreikusita 1.1 artikulua eragina ziurtatuta dago azken xedapeneko 1. zenbakian esaten denean:

Lege honen Aurreko Tituluko, I. Tituluko, II. Tituluko I. Kapituluko, 28. artikulutik 31. artikulura arte, eta lehengo xedapen gehigarrian dauden aginduak, espainol guztien berdintasuna bermatzeko, euren eskubideak gauzatzeko, eta euren betebeharrak betetzeko oinarritzko baldintzen arautzea dira, Konstituzioaren 149.1.1 artikulua araberan.

Lege organikoan araututakoak gizartean nolako eragina duen jakiteko, aldika egoera aztertzea eskatzen da bertan, eta abenduaren 21eko [1729/2007](#) Errege Dekretuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eraginkortasunari buruzko aldikako txostena nola egin behar den arautzen duenak, xedatzen du bi urtez behin egin behar dela txosten hori – emakumeen eta gizonen berdintasunez arduratzen den Ministerioari dagokio egitea –.

Autonomia Erkidegoek ere badituzte gizon-emakumeen berdintasunerako legeak, besteak beste: Euskadiko 4/2005 —KAE [13/2009an](#) konstituzioarekin bat zetorrela adierazi zen—, otsailaren 16ko [3/2012](#) Legeak aldatu duena, edota Murtziako apirilaren

⁷ Bere idazlana *The Subjection of Women* eskura daiteke <http://www.earlymoderntexts.com/pdf/millsubj.pdf> helbidean [azken kontsulta 2013ko urriaren 4an].





4ko [7/2007](#) Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa eta genero indarkeriaren kontra babesteko, edota Kanariar Uharteetako otsailaren 20ko [1/2010](#) Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunarena.

Sexu-berdintasunaren beste ondorio bat izan da transexualen zuzenbide-egoera berdina ziurtatzea —identitate transexualak gaixotasun mental edo organikotzat hartzen jarraitzeak pertsonen giza eskubideen urraketa dakarrela argi dago—.

Espainiako Estatuan, Konstituzioaren 149.1.8) artikulua Estatu zentralari erregistro eta agiri publikoak antolatzeko eskumen eskusiboak ematen dizkionez, Pertsonen Sexuaren Aipamena Erregistro Zibilean Zuzentzea Arautzen duen martxoaren 15eko [3/2007](#) Legea onetsi zen: Erregistro Zibilean sexuaz egiten den aipamena aldatu ahal izateko baldintzak arautzeko, erregistro horretan esaten dena ez badator bat eskaera egin duen pertsonak sentitzen duen sexu-identitatearekin; edota, hala nahi duen pertsonak bere izena aldatzeko aukera onartzeko, izen hori ez dadin izan nahasgarria eskatzen den sexu-aukerarekiko.

Euskadin, lege hori osatzeko egin da [14/2012](#) Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Lege horren xedea da, 1. artikulua araberak: “transexualei bermatzea Euskadiko herri-administrazioetatik arreta integrala eta beren beharrezko mediko, psikologiko, juridiko eta bestelakoetara egokitua jasotzeko eskubidea, gainerako herritarrek jasotzen duten moduan. Gainera, babesa ematea beren askatasuna erabil dezaten, oro har, bizitza sozialeko eremuetan eta, bereziki, zerbitzu publikoetan”.

V. Berdintasunaren eragina herri aginteetan

KAE [49/1982](#)an esaten denez, berdintasunak herri-aginte guztiak mugatzen ditu, bai legegilea, bai betearazlea eta bai epaitzekoa ere.

Konstituzioaren 9.2 artikuluan onartzen da gizartean ez dagoela berdintasunik gizabanako eta taldeen artean, eta herri-aginteei betebeharrak jartzen zaie, honako hau: berdintasun benetakoa eta eraginkorra sustatzea euren egintzen bitartez, hori bai, agintarien jarduerak ezin da inoiz apertatu izan (9.3 art.).

Kontuan izanda 9.2 artikuluan eta 14. artikuluan zer xedatzen den, esan daiteke ezberdintasunerako eskubidearen babesa dagoela, hau da, Konstituzioak ez duela segurtatzen guztiok berdinak garenik, guztiok ezberdinak izateko eskubidea dugula baizik. Berdintasuna ezberdintasuna kudeatzeko teknika bat baino ez dela, edo, labur esanda, bereizkuntza babesten dela Konstituzioan eta ez berdintasuna.

Horrelako diskurtsoak saihesteko, KAK, besteak beste, [156/2003](#) epaian, 3. ZO, esaten du 14. artikuluan aurreikusten den berdintasunerako eskubideak ez duela tratatu ezberdinerako eskubiderik ematen, ez dagoela zuzenbidetik tratatu ezberdina jasotzeko eskubide subjektiborik, edota ezin dela ez bereizteagatik bereizkuntza erabili (gauza bera errepikatzen da KAE 21/2001, 2. ZO; 49/2002, 2. ZO; 117/2006; edota [69/2007](#), 4. ZO). Baina KAKaren interpretazio hori ez dator bat GEEAren 2000ko apirilaren 6ko epaia, *Thlimmenos Greziaren aurka* auzia, bereziki 38 paragrafoarekin⁸, bertan Europako auzitegiak argi uzten du:

⁸ 38.(...) La Commission considère en outre que le droit de jouir des droits reconnus dans la Convention sans être soumis à discrimination est transgressé non seulement lorsque des Etats, sans fournir de justification objective et raisonnable, traitent différemment des personnes placées dans des situations analogues, mais également lorsque, sans justification objective et raisonnable, ils n'appliquent pas un traitement différent à des personnes dont les situations sont différentes.





Bereizkeria dagoela Estatuak, justifikazio objektibo eta zentzudunik gabe, egoera berean dauden pertsonak era ezberdinean tratatzen dituztenean, baina baita ere, **justifikazio objektibo eta zentzudunik gabe, ez dutenean tratu ezberdina jasotzen egoera ezberdinean dauden pertsonak.**

Interpretazio hori, ikusi dugunez, ez da oraindik gure zuzenbide-antolamenduan sartu, eta horregatik espainiarrok dugun eskubide subjektiboa berdintasunerakoa da, eta ez bereizkuntzarakoa. Gure sisteman, oraindik, ez da bereizkeriatzat hartzen behar den bereizkuntza ez egitea.

Orduan bereizkeria debekatuta dago eta bereizkuntza onartuta. 14. artikuluan **bereizkeria (egoera berdinei tratu ezberdina ematea)** debekatzen da, baina ez **bereizkuntza (egoera ezberdinei tratu ezberdina ematea)**. Ikuspuntu horretatik, erabakitzeaz dago, ea noiz den egintza bat bidegabea, bereizkeria eta bereizkuntzaren arteko muga delako bidegabekeria. Bereiz dezagun, orduan, bereizkuntza bereizkeriatik.

Bereizkuntzaren osagai objektiboak

(1) *Erkaketa*

Tratu ezberdina onartzeko bete behar den lehenengo baldintza hau da: gertakariaren arteko ezberdintasuna; dakigunez, ez dago berdintasun-printzipioa urratzerik egoera ezberdinetan bizi direnen artean egiten denean erkaketa (KAE 26/87), edo, alderantziz esanda, egoera berdinean daudenak tratu ezberdina jasotzea debekatzen da.

Kontuan izan behar dugu berdintasuna urratu dela adierazten duen frogatu behar duela. Eta, hori frogatzeko, bere egoeran daudenekin erkatu behar du bere burua, argi utzi behar du konparazio horretan tratu ezberdina jaso duela eta tratu ezberdin horren ondorioa bereizkeria izan dela. Horretarako, ezinbestekoa da *tertium comparationis* bat aurkitzea, hau da, osagai bat horrekin konparatzeko egoera, horren gainean arrazoiak emateko (KAE otsailaren 1eko 14/1985, edota 2/1997). Eta KAE 100/1988an, 3. ZO, esaten da erkaketa agintariak aurretik eman dituen erabakiekin egin behar dela.

Beste alde batetik, martxoaren 3ko KAE 46/2003an, 3. ZO, esaten da bereizkeria izan dela frogatzeko egin behar den alderaketa ezin dela egin subjektu berak aurretik jaso duen tratuarekiko, ezinbestekoa baita hirugarren batekin egitea.

Erkaketa egiteko, kontuan izan behar den beste baldintza bat da erkatzen diren egoerak eta jasotako tratuak lege barrukoak izatea. Jurisprudenziak askotan esan duenez, ezinezkoa da legez kanpoko berdintasuna eskatzea (KAE 8/1981 martxoaren 30ekoa, 17/1984 otsailaren 7koa, ZO 2, 1/1990 urtarrilaren 15ekoa, ZO 2, 340/1993 azaroaren 16koa, 157/1996, otsailaren 15ekoa 4. ZO, edota [27/2001](#), urtarrilaren 29koa, 7. ZO).

Auzitegien ebazpenak alderatzen direnean, kontuan izan behar dugu: a) *tertium comparationis* delako hori egiteko auzitegiak berak aurretik emandako epaiekin egin behar dela; b) beste batzuen auzien epaiek izan behar dutela, ez norberaren epaia beste auzi

38. The Commission further considered that the right not to be discriminated against in the enjoyment of the rights guaranteed under the Convention was violated not only when States treated differently persons in analogous situations without providing an objective and reasonable justification, but also when States, without an objective and reasonable justification, failed to treat differently persons whose situations were different. In the circumstances of the case, there was no objective and reasonable justification for the failure of the drafters of the rules governing access to the profession of chartered accountants to treat differently persons convicted for refusing to serve in the armed forces on religious grounds from persons convicted of other serious crimes.



batean; c) auzitegiak, gelak eta aretoak dituenen, erakunde berarena izan behar duela, epaileen independentzia dela eta; eta d) argi geratu behar duela ez dagoela arrazoirik aurreko epaietan adierazitakoetatik ateratzeko –begiratu KAE [117/2004](#), 2. ZO, bertan laburbiltzen baitira baldintzak–.

(2) *Arrazoizko helburua*

Bigarren baldintza helburua da. Litekeena da bereizkuntza bat egitea helburu zehatz eta adierazitakoa lortzeko. Eta helburu horrek, konstituzio-ikuspuntu batetik begiratuta, arrazoizkoa izan behar du. Tratu ezberdinak, bereizkuntza izateko eta ez bereizkeria, konstituzioan bidezkoa den helburu bat bilatu behar du, hots, bere arrazoizko justifikazioa behar du; eta horrelakoa da Konstituzioan defendatzen den balio nagusi batekin bat datorrena (KAE 75/1983, abuztuaren 3koa, eta [123/1987](#), uztailaren 15ekoa, 4. ZO).

(3) *Zentzuzkotasuna eta heinekotasuna*

Arrazoizko helburuaren gain, zentzuzkotasuna eskatzen da. Beraz, ematen den tratu ezberdina ez da bereizkeria izango arrazoizko helburu bat zentzuzko eran lortu nahi denean (KAE [114/1987](#), uztailaren 6koa, 5. ZO) eta bi osagai horien artean heina gordetzen denean. Hots, proportzioa gorde behar da ematen den tratu ezberdinaren eta lortu nahi den helburuaren artean (KAE 123/1987, uztailaren 15ekoa), ezberdintasun txiki bati zuzenbide-ondorio izugarriak ez emateko (KAE 45/1989 eta [50/1991](#), 4. ZO).

Hori bai, heinekotasunak ez du egokitasuna adierazi nahi, ezta hartutako neurriak aukerarik onena direnik ere. Bi horiek –egokitasuna eta aukera onena– irizpide politikoak dira, eta, horregatik, konstituzio-zuzenbidetik kanpo geratzen dira.

Labur esanda, 14. artikuluko berdintasunaren klausula orokorrak ez du eragozten gizatalde eta gizabanako ezberdinei tratu ezberdina ematea, esandako baldintzak betetzen direnean:

- (1) gizatalde eta gizabanakoak benetako egoera ezberdinean egotea;
- (2) ematen zaizkien tratu ezberdinek helburu bat izatea;
- (3) helburu hori arrazoizkoa izatea, hau da, konstituzioaren agindu, printzipio eta zuzenbide-helburuen aldetik onargarria izatea;
- (4) bilatzen den helburu eta ematen den tratu ezberdinaren artean barnekoherentzia bat egotea, zentzuzkotasuna;
- (5) zentzuzkoa izate hori heinekoa izatea —KAE 222/1992, 6. ZO ; edota 180/2001, 3. ZO—.

Baldintza horiek elkartzen direnean tratu ezberdinean, Konstituzioaren aldetik bidezkoa den bereizkuntza baten aurrean aurkituko ginateke; bestela, tratu ezberdina Konstituzioan debekaturiko bereizkeria izango litzateke.

Aipaturiko baldintza guztiak betetzen direnean, litekeena da norbaiten edo talde jakin baten aldeko ekintzak egitea. Hor dugu abenduaren [51/2003](#) Legea, Pertsona Ezinduen Aukera Berdina eta Bereizkeriarik Ezarena —abenduaren 1eko [1414/2006](#) Errege Dekretuak, nor den pertsona ezindua definitzen du 1. artikuluan, % 33tik gorako minusbalioetasuna dutenak direla esanez—. Abenduaren 26ko [49/2007](#) Legeak, bere aldetik, pertsona ezinduen aukera berdinei, bereizkeriarik ezari eta eskuragarritasun unibertsalari buruzko arau-haustek eta zigorrak ezartzen ditu. Adibidez, uztailaren 26ko [578/2013](#) Errege Dekretuak, osasun-lanbideen azaroaren 21eko [44/2003](#) Legearen 22.3 artikulua garapena eginez, ezgai diren pertsonen aplikatu behar zaizkien aldeko ekintzak ezartzen ditu, osasun-prestakuntza espezializatuan sartzeko urtero egiten diren selekzio-probetan parte hartzen dutenenean.





Gizonezko eta emakumezkoen artean lan-esparruan dagoen ezberdintasuna gutxitzeko, zilegiak dira emakumezkoen aldeko egintzak; baina egintza horiek muga bat dute, hau da, ezin dute gizonezkoen kontra eraginik izan. Hori dela eta, lanpostu jakin bat eskuratzeko, emakumezkoen alde egiten bada emakumea izateagatik, orduan, bereizkeriatzat hartuko litzateke, bi sexuetakoei aukera berdina izan behar dituztelako (KAE 317/94, azaroaren 28koa). Zuzenbidean onartzen dena da gizonezko eta emakumezkoen arteko gaitasuna dutenean lanposturako emakumezkoaren —edo gizonezkoaren— alde egitea, zuzenbidean aurreikusten den lan-parekotasuna lortzeko. Esandako hori bermatzeko dugu, besteak beste, irailaren 23ko 2002/73/EE [Direktiba](#), gizonen eta emakumeen tratua berdinerako printzipioa aplikatzeko, enpleguan sartzeko, heziketan, igoeretan eta baldintzetan. Direktiba horren eta aurretik egon direnen interpretazioari dagokionez ezinbestekoak dira EBJA Epaia: 2006ko otsailaren 16koa, C-294/04 [auzia](#), *Carmen Sarkatzis Herrero Instituto Madrileño de la Salud (Imsalud)aren kontrakoa*; edota 2000ko uztailaren 6ko epaia, C-407/98 [auzia](#), *Abrahamsson eta Anderson*.

VI. Berdintasuna eta bereizkeriarik eza Europar Batasunean

14. artikuluko berdintasuna espainiarrentzat baino ez dago onartuta, espainiarrak direlako estatuko hiritarrak, haiek sortu eta osatzen dutelako Espainiako estatua, haiek dutelako Estatua sortzeko ahalmena.

Horregatik, berdintasuna espainiarrentzat baino ez dago onartuta, gainerako estatuen antzera. Horren ondorioa da atzerritarren tratua ezberdina jaso dezaketela. Eta horrela izan ohi da, Europar Batasuneko hiritarren kasuan izan ezik.

Europar Batasunaren zuzenbidean⁹ beste irakurketa bat ematen zaio 14. artikuluari.

Esan dugunez, Europar Batasunaren Funtzionamendurako Itunaren —EBFI hemendik aurrera— 18. artikuluan, itunaren aplikazio-eremuan, bereziki debekatzen da *nazionalitatean oinarritutako edozein bereizkeria*.

Hori horrela izanik, kontuan izan behar dugu berdintasunak zer eragin duen Espainian bizi diren Batasuneko hiritarren gain. Eta aipatuko dugu, amaitzeko, pertsona horiek, euren berdintasuna defendatzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegira —EBJA, hemendik aurrera— joateko aukera dutela.

Eta hori egin da askotan; adibidez ikasleen berdintasunari buruz, interesgarriak dira jakiteko nolako diru-laguntzak jaso daitezkeen ikasketak egiten ari diren estatuetatik EBJAren 2008ko azaroaren 18ko epaia, C-158/07 [auzia](#), *Jacqueline Förster*, edo 2005eko martxoaren 15ekoa, C-209/03 [auzia](#).

Eta Espainia nola errunduntzat hartu den ez duelako nazionalitatea dela eta bereizkeriaren debekua betetzen, begiratu C-405/01 [auzia](#), 2003ko irailaren 30eko epaia, eta C-94/08 [auzia](#), 2008ko azaroaren 29ko epaia. Bi kasuetan nazionalentzat baino ez zegoen aurreikusita itsasontzi ezberdinetan kapitain edo lehen ofiziala izatea.

Hori bai, era berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak argi utzi du estatu kide bakoitzeko hiritarren arteko ezberdintasunak salatzen ezin dela Batasuneko zuzenbidea erabili, zuzenbide horretan xedaturiko berdintasun kasuetan izan ezik.

Eta horrelako baten aurrean egongo ginateke sexuen arteko ezberdintasun-kasuetan, zeren eta Maastrichteko Itunetik honantz Itunen hainbat artikulutan arautzen baita gai hori:

9

http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/eu/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/legeria.html#V- Europako legeria [azken kontsulta 2013ko urriaren 3an] helbidean dituzu euskaratuta dauden testuak.





Europar Batasunaren Itunaren 2. artikuluan: Batasunaren balio nagusitzat hartzen da berdintasuna eta aurrerago, zuzenbide-indarrrik gabe baina aipatu egiten da, estatu kide guztien gizartearen baitan “emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri” bat dela. 3.3 artikulua, barne-merkatua ezarriko duela adierazten duenak, honako hau adierazten du:

“Batasunak gizarteko bazterkeriaren eta bereizkeriaren aurka egingo du eta gizarte-justizia eta -babesa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartzasuna eta haurren eskubideen babesa sustatuko ditu”.

EBFIaren 8. artikulua dio: “Ekintza guztietan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak kendu eta berdintasuna sustatzea izango du helburu Batasunak¹⁰”. 157.1 artikuluan esaten da: “Estatu kide bakoitzak, lan berdinarengatik edo balio bereko lanarengatik gizonek nahiz emakumeek lansari berdina jaso behar dutelako printzipioa aplikatuko zaiela bermatu behar du”. Eta 2. zerbakiaren zehazpena da zer den lansaria: “soldatetik aparte artikulua honen arabera, enpresaburuak lan harremanak direla eta langileari emandako oinarritzko edo gutxieneko soldata edo alokairua, eta, zuzenean edo zeharka, dirutan zein gauzatan emandako beste esker-sari guztiak dira lansari” eta ñabardura gehiago sartzen dira artikuluan hori ziurtatzeko.

Artikulu horretako aginduak arau hauetan garatu ziren: 1) otsailaren 10eko 75/111/EEE Direktiban, emakumezkoen eta gizonezkoen lansari bera arautu zuen hura; eta 2) 1976ko otsailaren 9ko 76/207/EEE Direktiban, lanean sartzean, lan-heziketan eta promozioan eta lan-baldintzetan gizonezko eta emakumezkoen tratu berdinari buruzkoan, 2002ko irailaren 23ko 2002/73/EE Europar Parlamentu eta Kontseiluaren Direktibak aldatu zuen azken hori; egun gaia Europar Parlamentu eta Kontseiluaren uztailaren 5eko [2006/54/EE](#) Direktibak arautzen du¹¹. Espainian, 2002ko otsailaren 21ean talde *popularrak* lege-proposamen bat aurkeztu zuen Kongresuan Langileen Estatutuko 28. artikulua aldatzeko, zeren eta, Espainian, artikulua horren hitzek ez baitzuten segurtatzen gizonezko eta emakumezkoen lansari bera, bertan soldata baino ez baitzen arautzen, eta, horregatik, gainerako sariak haren eremutik at geratzen ziren. Hau da, Espainiako legeriak ez zituen betetzen EBFiren 157. artikulua agindua eta, ezta ere, emakumezko eta gizonezkoen lansari bera arautzen zuen 75/111/EEE Direktibak esandakoa.

Proposamen hori zela eta, uztailaren 5eko [33/2002](#) Legea atera zen, Langileen Estatutuaren testu bateratuaren 28. artikulua aldatzeko (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuan onartu zen Langileen Estatutua). Artikulu berria, lansari bera sexu-arrazoierengatik izenburupean, honela geratzen da: Enpresaburuak beharturik dago balio bereko lanagatik zuzen edo zeharka emandako lansari bera ordaintzera, lansaria edozein eratakoa izanik, soldatapekoa edo soldatetik kanpo lortutakoa, inolako osagai edota baldintzatan ezin egon daiteke sexu-bereizkeriarik.

Ezin dugu ahaztu 1998ko urtarrilaren 20an L 14 EBAOn argitaratu zen 1997ko abenduaren 15eko [1997/80](#) Direktibak, sexu-bereizkeriari buruzko auzietako frogazama arautzen duenak, 4. artikuluan esaten duela horrelako auzietan salatuari —ez salatzaileari— dagokiola frogatzea ez duela egin zuzeneko edota zeharkako bereizkeriarik.

Beste alde batetik, azaroaren 27ko [2000/78/EE](#) Direktibak enpleguan eta lanean tratu berdina izateko eremu orokorra ezartzen du, eta ekainaren 29ko [2000/43/EE](#) Direktibak, pertsonen tratu berdinarengatik printzipioaren erabilera arautzen du, alde batera utzita haien arraza edo etnia-jatorria. Eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko [2010/41/EB](#) Direktibak gizon-emakumeen tratu-berdintasunaren

¹⁰ http://fra.europa.eu/fraWebsite/home/home_en.htm helbidean EBko oinarritzko eskubideen agentziaren urteroko txostenak ikus daitezke, eta txosten horietan argi geratzen da bereizkeria ez dela baztertu gure herrialdeetan.

¹¹ [Euskaraz](#)





printzipioa nola gauzatzen den langile autonomoen artean arautzen du eta Kontseiluaren 86/613/EEE Direktiba indargabetzen du.

Europar Batzordearen ekainaren 16ko [2008/590/EE](#) Erabakiak, gizon-emakumeen aukera berdinerako kontsulta-lantaldea sortu eta arautzen du, 68 kidek osatzen dutena – enpresa eta lan-esparrukoak, gobernuetatik datozenak...-. Emakumeen *lobby* europarrak 2 ordezkari izango ditu, behatzaile moduan.

Berdintasun hori lortzeko bidean kontuan izan behar dugu, gauza bat emakumeek baino ez dutela egiten: haurdun egon eta erditu. Hori dela eta, horrelako egoeretan berdintasuna lortzeko, bereziki lanean, hainbat arau egin dira:

(1) Urriaren 19ko [92/85/EEE](#) Direktiba, haurdun dagoen edo erditu eta edoskitze aroan dagoen emakumearen osasuna eta segurtasuna babesteko;

(2) Ekainaren 3ko [96/34/EE](#) Direktiba, europar sindikatuekin negoziaturiko gurasoen baimenerako eredu-hitzarmena.

Direktiba horiek betetzeko Espainian egin zen azaroaren 5eko [39/1999](#) Legea, langileen familia- eta lan-bizitzaren koordinazioa sustatzeko legea, hain zuzen — interesgarria KAE [240/1999](#), KAREN interpretazioa gai horien inguruan dagoen bereizkeriari buruz—.

VII. Kasu praktikoak

(1) Amaia J.P., ZK enpresako langilea, konturatzen da bere soldata bere lankideak diren gizonena baino txikiagoa dela, nahiz eta lan bera egin. Hori dela eta erreklamatzeko enpresaren zuzendaritzan, eta hark erantzuten dio Hitzarmen Kolektiboan adierazten dena baino ez duela egiten. Erantzun hori jaso ondoren Amaia J.P. langileak Herriaren Defendatzailearengana jotzea erabakitzen du, eta une berean babes helegite bat aurkezten dio Konstituzio Auzitegiari, Konstituzioaren 14. artikuluan debekatzen den sexu-bereizkeria argia dagoelako.

Aztertu gertaturikoa zuzenbide-ikuspuntutik

(2) Luis KPk, AB enpresako langileak, uste du berdintasunerako eskubidea urratu diotela, enpresak erabakitzen duenean diru-laguntzak ematea bertako emakume eta gizon-alarguneci haurrak zaintzeko.

(a) Aurkitu bereizkeriaren aldeko argudioak.

(b) Aurkitu bereizkuntzaren aldeko argudioak.

(c) Praktika egin eta gero, irakurri KAE [128/1987](#).

(3) Asier A eta Asier B DI enpresako langileak dira, lehenengoa Bilbon eta bigarrena Gasteizen. Lan-gatazka baten ostean biak izan dira kaleratuak arrazoi berdinengatik eta biek eramaten dute erabaki hori auzitegietara. Gasteizko auzitegiak Asier Bren kanporatzea legez kanpokotzat hartzen du, eta Bilbokoak ez. Asier Ak helegite bat aurkezten du epaiaren kontra berdintasunerako eskubidea urratu diotelako.

Litekeena da?

(4) Extremadurako legebiltzarrak, EKren 130. artikuluan oinarrituta eta kontuan izanda landa-lurren jabe izan gabe nekazaritzatik bizi den gizakien kopurua, zerbait egitea erabakitzen du: lehenengo neurria izango da lege bat egitea Extremaduran jaiotako ez direnei landa-lurren jabe izatea debekatzeko.

Litekeena da?



(5) Maria A, ijitoa, eta ijitoen erritua jarraituz Jose Brekin ezkondu da. Senarra hil eta gero, ez diote ematen alargun-pentsioa, epaileak uste duelako izatezko bikotea direla, ez zeudelako ezkondu Espainiako legeriaren arabera —dakigunez, izatezko bikoteek ez dute pentsiorako eskubiderik—. Maria Ak erabakiaren kontra egiten du etnia- eta gizarte-jatorria dela eta bereizkeria izan delako. Bada?

Praktika egin eta gero, irakurri KAE [69/2007](#) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren —GEEA, hemendik aurrera— 2009ko abenduaren 8ko epaia, 49151/07 auzia —bilatu <http://hudoc.echr.coe.int/sites/eng/Pages/search.aspx#> helbidean—.

(6) Begiratu KAE [3/2007](#), eta gero GEEAren 38285/09 auzia, 2013ko otsailaren 19ko epaia—bilatu <http://hudoc.echr.coe.int/sites/eng/Pages/search.aspx#> helbidean—.

(7) Aurreko epai horietatik bat aukeratu, irakurri eta laburtu bertan adierazten dena:

(a) KAE [199/2000](#);

(b) KAE [117/2006](#); edota

(c) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren —EBJA, hemendik aurrera—2010eko urriaren 12ko epaia, [C-499/08](#) auzia.

(8) Begiratu:

(a) EBJAren 2010eko irailaren 30eko epaia, [C-104/09](#) auziari dagokiona, EBJAk adierazi zuelako Espainiak zuen araua gurasoen baimenari buruz ez zettorrela bat EBko arauekin; eta
(b) EBJAren 2013ko irailaren 19ko epaia, [C-5/12](#) auziari dagokiona, EBJAk ontzat hartzen duelako Espainiako legeria —irakurri gero KAE [75/2011](#)—.

VIII. Ezinbesteko estekak

Nahiz eta eskura duzun testuan hainbat lege eta epai ikusteko estekak barneratuta egon, web-ean mugitzen den edonork daki guztiz aldakorrek direla esteka horiek, horregatik bilakaerak egiteko aukera landu behar da eta horretarako ondoko estekak ezagutzea ezinbestekoa da:

Arauak

Espainiakoak: <http://www.boe.es/legislacion/legislacion.php>

Euskadikoak: http://www.bopv.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_15?e

Europar Batasunekoak <http://eur-lex.europa.eu/es/index.htm>

Jurisprudentzia

Espainiako auzitegiena:

<http://www.poderjudicial.es/cgpi/es/Servicios/Jurisprudencia>

Konstituzio Auzitegiarena: <http://hj.tribunalconstitucional.es/>

Giza Eskubideen Europako Auzitegiarena:

<http://hudoc.echr.coe.int/sites/eng/Pages/search.aspx#>

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarena:

<http://curia.europa.eu/juris/recherche.jsf?language=es>

Idazlan akademikoak





<http://dialnet.unirioja.es/>

Genero-ikuspegia barneratzen duten lanak Konstituzio Zuzenbideko alorrean:

<http://www.feministasconstitucional.org/content/investigacion-y-docencia>

Genero-ikuspegia barneratzen duten lanak UPV/EHU-n:

<http://www.berdintasuna.ehu.es/p234->

[content/eu/contenidos/informacion/igualdad_publicaciones/eu_info/publicaciones_pagina.html](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/igualdad_publicaciones/eu_info/publicaciones_pagina.html)

Hizkera ez sexista erabiltzeko baliabideak

Euskaraz: [http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/planigualdad_informe_situacion/eu_informes/lenguaje_ehu.html)

[content/eu/contenidos/informacion/planigualdad_informe_situacion/eu_informes/lenguaje_ehu.html](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/planigualdad_informe_situacion/eu_informes/lenguaje_ehu.html)

Gaztelaniaz: <http://www.berdintasuna.ehu.es/p234->

[content/es/contenidos/informacion/planigualdad_informe_situacion/es_informes/lenguaje_ehu.html](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/es/contenidos/informacion/planigualdad_informe_situacion/es_informes/lenguaje_ehu.html)